**GOBERNU BATZARRA**

**2015. 05. 15**

**Alkatea:**

**Ibai Iriarte San Vicente**

**Zinegotziak:**

**Lore Agirre Zipitria**
**Hasier de los Rios Soraluze**
**Iñaki Xabier Irazabalbeitia**

**Idazkaria:**

**Jose Luis Unanue Ugalde**

**Kontuhartzailetzako Teknikaria:**

**Paulino Alonso Eraso**

**Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamabosteko maiatzaren hamabostean goizeko 10:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.**

**1.- Aurreko akta onartzea.**

**2.-"9.3 "Korazonistak" azpiesparruko urbanizatzeko jarduketa programa (PAU)/Programa de actuación urbanizadora (PAU) del ámbito "9.3 Corazonistas".**

**3.-Langunea Tolosaldea 2014; Egimendi Nekazal Tresnak, S.L., enpresaren dirulaguntza zuzentzea.**

**4.-Tolosaldea Mankomunitatearen otsai-leko fakturaren akats zuzenketa.**

**5.-Tolosaldea Mankomunitatearen martxoko diru ekarpena.**

**6.-Ondasun Higiezinen gaineko zerga. Errekargua. Besteak.**

**7.-Ondasun Higiezinen gaineko zerga. Errekargua. Egoitza.**

**8.-Ibilgailuaren zergaren ordainketa zatikatzea.- Birjarpenezko errekur-tsoa.**

**9.-Solicitud de HERROLDE, S.L. de corrección del encuadramiento de la tasa de residuos.**


**10.-M.P.E.U. Errota Berri baserria. Obra baimena eta EIOZen hobaria edo salbuespen eskaera.**

**111.-Bide publikoaren okupazioa eta zaborraren erreziboen ordainketa zatikatzea:C.B.A.ren eskaera.**

**112.-Isunen erreziboen ordainketak zatikatzea: L.P.G.ren eskaera.**

**113.-Kotxearen zergak eta isunen erreziboen ordainketa zatikatzea: D.M.A.ren eskaera.**

**114.- Tailer kulturalen erreziboen ordainketa zatikatzea:C.G.M.R.en eskaera.**

**115.-Isunen erreziboen ordainketak zatika-tzea: L.V.S.en eskaera.**

**116.-Isunen erreziboen ordainketak zatika-tzea: M.H.T.ren eskaera**

**17-11/2015 zenbakia duen faktura-zerrenda.**

**1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2015eko maiatzaren 8an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

**2.-“9.3 “Korazonistak” azpiesparruko urbanizatzeko jarduketa programa (PAU)/Programa de actuación urbanizadora (PAU) del ámbito “9.3 Corazonistas”.**

Ikusita “9.3 Korazonistak” azpiesparruko Urbanizatzeko Jarduera Programa, Arditurri Bidania, SL enpresak sustaturikoa, hain zuzen ere.

Ikusirik, era berean, horren gainean idatzitako txosten juridikoa eta teknikoa, espedientean jasota daudenak, eta ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren legeak, 156 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Hirigintza batzordeak honi buruz jaulki duen diktamenarekin bat

Visto el Programa de Actuación Urbanizadora del subámbito “9.3 Corazonistas” promovido por la empresa Arditurri Bidania, S.L.

Vistos los informes jurídico y técnico emitidos al respecto y que obran en el expediente, y de conformidad con lo previsto por el artículo 156 de la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo del País Vasco, la Junta de Gobierno, de conformidad con el dictamen emitido por parte de la informativa de

etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I  D U**

**LEHENA.-** "9.3 Korazonistak" azpiesparruko Jarduera Programari (aurrerantzean UJP) hasierako onespena ematea ondoko baldintza hauekin:

**1.1.-**Aurkezturiko urbanizazio aurreproiektuak ez dakar inongo aurrekonturik, nahiz eta bideragarritasun ekonomikoa aztertzen den atalean kantitate bat jaso. Osatu egin beharko da.

**1.2.-**Kontutan izanda bide-zorra duten eremu batzuk daudela, azpian aparkalekuekin, inolaz ere instalazioa publikoak ezingo dira eremu pribatutik joan (aparkalekuetako sabaian zintzilik).

**1.3.-**Ikusirik aparkalekuak eraikitzeko garaian Iturritxiki plazan dagoen artea kaltetua izango dela, urbanizazio proiektuak arbola hori lekuz aldatzeko aurreikuspena jaso behar du, herriko beste punturen batean kokatzeko.

**1.4.-**Apeaderoko eskailerei irtenbide bat eman beharko zaie eta behin betikoz kendu ezin badira, logikoena litzatekeena, beste soluzio bat emanez, pasabidetik Musika Eskola atzealdera doan ibilbidea oztopatzen ez duena.

**1.5.-**Mugikortasunaren inguruan, eraikinaren azpian aurreikusten den 7x7-ko pasabideak garajeetako erabiltzaileei pasatzeko aukera eman beharko lieke, nahiz eta puntualki izan. Hori dela eta, lurzoruaren akaberak eta ezkaratzen kokapenak zehazteko garaian hori aurreikusita egon beharko du.

Urbanismo, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**A C U E R D A**

**PRIMERO.-** Aprobar, inicialmente, el Programa de Actuación Urbanizadora (en adelante P.A.U.) del subámbito "9.3 Corazonistas" con el siguiente condicionado:

**1.1.-** El anteproyecto de urbanización presentado no viene acompañado de ningún presupuesto, aunque sí se indica una cantidad en el apartado relativo a su viabilidad económica. Deberá completarse.

**1.2.-** Considerando la existencia de varios espacios con servidumbre de paso con aparcamientos subterráneos, las instalaciones públicas no podrán en ningún caso dirigirse por los espacios privados (suspendidos del techo de los aparcamientos).

**1.3.-** Teniendo en cuenta que la encina situada en la plaza de Iturritxiki será dañada cuando se vayan a construir los aparcamientos, el proyecto de urbanización deberá prever su cambio de ubicación a otro lugar del municipio.

**1.4.-** Deberá plantearse una solución para las escaleras del Apeadero; y aunque no se puedan eliminar definitivamente, que sería lo más lógico, la solución que se plantee no deberá obstaculizar el paso hacia la parte trasera del edificio de la Academia de Música.

**1.5**.- En cuanto a la movilidad, el paso de 7x7 que se prevé bajo el edificio debería permitir el tránsito de las personas usuarias de los garajes. Por ello, este aspecto deberá contemplarse a la hora de determinar el acabado del suelo y la ubicación de los portales.

**1.6.-**Ur hornidurari dagokionez, proposamenean Inpernu kalearen bukaera Musika Eskolaren atzealdearekin lotzen da. Eremu pribatutik pasa behar ezkero hori egiteko, aukera hau baztertu egin beharko litzateke eta Rondilla kalera bideratu kanalizazio berria, Ezeizako kale estutik.

**1.7.-**Bestalde, apeaderotik hasi eta Rondilla kaleraino fibrozementozko hodi bat doa gaur egun, elizaren kontra. Garajeak eraikitzeko garaian puskatu ez dadin, indusketa hasi aurretik hodi hori aldatu egin beharko da eta fundiziozko bat jarri.

**1.8.-**Ur zikinak Rondilla kaleraino bideratu beharko dira, hodi biltzaile berriaren arketan lotura eginez.

**1.9.-**Memoria osatzen duen pleguan, Gipuzkoako Urak SA enpresaren Erregelamendu Teknikoaren aipua jaso beharko da, ur hornidura eta saneamenduko instalazioek bete beharko dutena.

**1.10.-**Aurreproiektuak dagozkion sektoreko erakundeen baimena izan beharko du.

**1.11.-** Honako epe hauek jartzen dira:

- 3 hilabete, UJP-ren behin betiko onespena jakinarazten denetik zenbatuta, Birpartzelatzeko proiektua aurkezteko.

- 3 hilabete, Birpartzelatzeko proiektuaren behin betiko onespena jakinarazten denetik zenbatuta, Urbanizazio Obra Osagarrien Proiektua eta Eraikuntza Proiektua aurkezteko.

- 3 hilabete, eraikitzeko lizentzia jakinarazten denetik zenbatuta, eraikuntza obrak hasteko.

**1.6.-** En cuanto al suministro de agua, en la propuesta se enlaza el final de la calle Inpernu con la trasera de la Academia de Música. Si su ejecución obliga a pasar por el espacio privado deberá rechazarse esta alternativa y dirigir la nueva canalización hacia la calle Rondilla, por la calleja de Eceiza.

**1.7.-** Por otra parte, junto a la iglesia, partiendo del apeadero y hasta la calle Rondilla hay un tubo de fibrocemento. Con el fin de que no sufra desperfectos al ejecutarse la construcción de los garajes, previo al inicio de los trabajos de excavación deberá sustituirse este tubo por uno de fundición.

**1.8.-** Las aguas residuales deberán canalizarse hasta la calle Rondilla, realizándose la unión en la arqueta del nuevo colector.

**1.9.-** En el pliego que conforma la memoria deberá mencionarse el Reglamento técnico de la empresa Gipuzkoako Urak, S.A., que será de obligado cumplimiento por la instalaciones de suministro de agua y de saneamiento.

**1.10.-** El anteproyecto deberá contar con las autorizaciones sectoriales que correspondan.

**1.11.-**Se establecen los siguientes plazos:

-Plazo de 3 meses, contados desde la notificación de la aprobación definitiva del PAU, para presentar el proyecto de Reparcelación.

-Plazo de 3 meses, contados desde la notificación de la aprobación definitiva del Proyecto de Reparcelación, para presentar el Proyecto de Obras Complementarias de Urbanización y el Proyecto de Edificación.

-Plaza de 3 meses, dese la notificación del otorgamiento de la licencia de edificación, para iniciar las obras de edificación.

Obrak ez badira hasten epe horren barruan, soto bakar bat eraikitzeko baimena bertan behera geratuko da eta sustatzaileak eraiki beharko ditu beharrezkoak diren aparkaleku plazak aparkamendu estandarra betetzeko beren partzela propioan.

**1.12.**- Planari behin betiko onespena eman aurretik aurkeztu beharko da abal bat, 6.707, 31 eurokoa, hau da, honako gastu hauen zenbateko osoaren % 1:

- Urbanizazioa 62.480,99 €
- Gestio urbanistikoaren gastuak 18.000,00 €
- Beste leku bat ematea 590.250,00 €

GUZTIRA 670.730,99 €

**BIGARRENA.-**Espedientea hogei egun informazio publikoko tramitera jarrita edukitzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuta.

**HIRUGARRENA.-**Hasierako onarpenaren erabakia jardueraren eraginpeko ondasunen eta eskubideen titularrei jakinaraztea.

En caso de que las obras no se inicien en el plazo señalado se entenderá que la autorización de construir un solo sótano quedará revocada debiendo el promotor construir las plazas de aparcamiento necesarias para cubrir el estándar de aparcamiento en su propia parcela.

**1.12.-**Con anterioridad a la aprobación definitiva del Plan deberá presentarse un aval por importe de 6.707,31 euros que se corresponde con el 1% del total de los siguientes gastos:

-Urbanización 62.480,99 €
-Gastos gestión urbanística 18.000,00 €
-Realojos 590.250,00 €
TOTAL 670.730,99 €

**SEGUNDO.-** Someter el expediente a trámite de información pública mediante la publicación del correspondiente anuncio en el B.O. de Gipuzkoa, por un plazo de veinte días.

**TERCERO.-** Notificar el acuerdo de aprobación inicial a las personas de bienes y derechos afectadas por la actuación.

## 3.- Langunea Tolosaldea 2014; Egimendi Nekazal Tresnak, S.L., enpresaren dirulaguntza zuzentzea.

Gobernu Batzarrak, 2015eko otsailaren 19an, Langunea Tolosaldea 2014 programaren barruan ondorengo dirulaguntza onartu zuen:

| Enpresa | Kontratu kopurua | Kontratu iraupena | Lanaldia | Langilea | Dirulaguntza |
|---|---|---|---|---|---|
| EGIMENDI NEKAZAL TRESNAK SL | 1 | 3 hilabete | %83 | J.I.A. | 2.490,00 |

Dirulaguntza hau kontratazio kostuaren %100 zen.

Ikusirik kontratuaren lanaldia %83koa dela, eta kontuan izanda Lanbide ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZETARAKO LAGUNTZEKO onartutako oinarriak xedatzen dutena, %75ko dirulaguntza dagokio kontratu honi:

Gobernu Batzar honek, Ingurumen Teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorriz, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.- Gobernu Batzarrak, 2015eko otsailaren 19an, Egimendi Nekazal Tresnak, S.L., enpresaren dirulaguntzaren onarpena bertan behera uztea.

**BIGARRENA**.- Ondorengo dirulaguntza hau ematea, beti ere azalpen zatian aipatutako programan xedatzen diren baldintzak eta gauzatuko den hitzarmenean jarritakoak betetzen baditu.

| Enpresa | Kontratu kopurua | Kontratu iraupena | Lanaldia | Langilea | Dirulaguntza |
|---|---|---|---|---|---|
| EGIMENDI NEKAZAL TRESNAK SL | 1 | 3 hilabete | %83 | J.I.A. | 2.380,73 |

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Egimendi Nekazal Tresnak enpresari, Kontuhartzailetzari eta Ingurumen Enplegu eta Garapen ekonomikoa departamentuari.

**4.- Tolosaldea Mankomunitatearen otsaileko fakturaren akats zuzenketa.**

Gobernu Batzarrak, 2015eko apirilaren 24an, besteak beste, Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko otsaileko faktura onartu zuen (112.817,11 €)

Tolosaldea Mankomunitateak, 2015eko maiatzaren 7an, idatzi bat aurkeztu du 2015eko otsaileko ekarpenean, ekarpen aldakorreko puntu berdea eta birziklagarrien diru sarreran, akats bat sumatu duela adierazteko.

Ondorioz, Tolosaldea Mankomunitateak faktura berria aurkeztu du, 122.035,99 eurokoa.

Aipatutakoa ikusirik eta Ingurumen teknikariak egin duen txostenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.- Onartzea Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateak aurkeztutako otsaileko faktura berria, 122.035,99 €-koa.

**BIGARRENA**.- Gobernu Batzarraren apirilaren 24ko fakturaren onarpena bertan behera uztea, lehenengo zatian onartutakoak ordezkatzen duelarik.

**HIRUGARRENA**.- Erabakiaren berri kontuhartzailetzari, Ingurugiro departamentuari eta Tolosaldea Mankomunitateari ematea.

**5.- Tolosaldea Mankomunitatearen martxoko diru ekarpena.**

Tolosaldeko Mankomunitatean 3 sistema desberdinen bidez egiten da hondakinen bilketa: atez-atekoa, landa eremukoa eta edukiontzien bitartez egiten dena. Sistema bakoitzak ingurumenarekiko eragin desberdinak ditu eta sistema bakoitzaren kostuak eta diru sarrerak (bilketa, garraioa eta tratamendua) desberdinak dira. Hori dela-eta, formula bat garatu da Mankomunitatearen baitan herri bakoitzak egin beharreko ekarpenak modu orekatu eta justuan banatzeko.

Horrela, bi zatitan banatzen da udal bakoitzak egin beharreko ekarpena:

* **Gastu finkoa:** Hondakinen bilketa sistema bakoitzari dagokiona eta mankomunitatearen gastu estrukturalei dagokiena.

***Gastu aldakorra:** Hondakinen tratamenduari dagokiona, material birziklagarrien diru-sarrerak kontuan hartuta.

Hori guztia kontuan izanik, Tolosaldeko Mankomunitateak 2015ko apirilaren 16ko datarekin martxoari dagokion faktura (116.986,15 eurokoa) aurkeztu du.

Beraz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA.-** Onartzea Tolosaldeko Mankomunitateak aurkeztutako faktura (martxoari dagokiona). Kopuru osoa: 116,986,15 €.

**BIGARRENA-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari, Ingurumena departamentuari eta Tolosaldea Mankomunitateari.

**6.- Ondasun Higiezinen gaineko zerga. Errekargua. Besteak.**

Uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak aldaketa batzuk sartu zituen tokiko zerga-ordainketan eta 2012ko uztailaren

La Norma Foral 4/2012, de 4 de julio, que introdujo varias modificaciones en el pago de impuestos locales, fue publicada en el

10eko 131 zk.ko GAOn argitaratu zen.

Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat ohiko bizilekutzat joko da, biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona batek edo gehiagok okupatuta dagoela.

Espedientean azaltzen diren zergadunak ez daude bertan azaltzen diren etxebizitzetan erroldatuta.

Hala ere, errekargua ez aplikatzeko ondorengo egoera onartu zen:

*"Errekargu honen helburuen espiritu eta irizpideekin bt dtorren kasuetan, Gobernu Batzordeak erabakiko du errekargua*ren *salbuespena onartzea ala ez".*

Beraz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I D U**

**LEHENA**.- Errekargua EZ aplikatzea 1 eta 3 eranskinetan agertzen diren zergadunei. Horiek dira espedientean Idazkariak diligentziatuta jasotako zerrendan daudenak. 1. eranskinari dagokionez, egoera berezian daudelako, eta 3. eranskinean, berriz, gaur egun etxebizitza hori hutsik ez dagoelako.

**BIGARRENA**.- Aipatutako zergaren kuotaren %50eko errekargua aplikatzea 2. eranskinean Idazkariak diligentziatuta agertzen den zergadunari, zeren 2015ko urtarrilaren 1ean ez zirelako inoren ohiko etxebizitzak.

BOG nº 131, de 10 de julio de 2012.

Un bien inmueble de utilización residencial se considerará vivienda habitual, siempre que conste en el padrón municipal que el bien inmueble está ocupado por una o más personas.

Los contribuyentes que aparecen en el espediente no estám empadronados en dichas viviendas.

Aún y todo, se aprobó el siguiente supuesto de no aplicación del recargo:

"*En los casos que estén de acuerdo con el espíritu y criterios de los objetivos de este recargo, la Comisión de Gobierno decidirá la adm*isión *o no de la exención del recargo".*

Por todo ello, la Junta de Gobirno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldí,

**A C U E R D A**

**PRIMERO**.-NO aplicar el recargo a los contribuyentes que figuran en los anexos 1 y 3, relación que, diligenciada por el Secretario, figura en el expediente. En el caso del anexo 1 por considerar que concurren circunstancias especiales y en el 3 porque a fecha de hoy la vivienda no está vacía.

**SEGUNDO**.- Aplicar el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto al contribuyente que figura en el anexo 2, que diligenciado por el Secretario, consta en el expediente, ya que a fecha 1 de enero de 2015 dicha vivienda no era vivienda habitual de persona alguna.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari.

**TERCERO**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención.

**7.- Ondasun Higiezinen gaineko zerga. Errekargua. Egoitza.**

Uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak aldaketa batzuk sartu zituen tokiko zerga-ordainketan eta 2012ko uztailaren 10eko 131 zk.ko GAOn argitaratu zen.

La Norma Foral 4/2012, de 4 de julio, que introdujo varias modificaciones en el pago de impuestos locales, fue publicada en el BOG nº 131, de 10 de julio de 2012.

Udalbatzak, 2013ko azaroaren 8an egindako osoko bilkuran, eta 2014ko ekitaldirako ondorioetarako, Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren Ordenantza Fiskalari dagokionez, eta goian aipatutako Foru Arauko 1. artikuluan xedatutakoan babestuta, %50eko errekargua mantentzea erabaki zen aipatutako Zergaren kuota likidoaren gainean, baldin eta bizitoki erabilerarako ondasunak subjektu pasiboaren edo errentagatik edo erabilera-lagapenagatik hirugarrenen ohizko bizitoki ez badira.

La Corporación Municipal, en sesión celebrada el 8 de noviembre de 2013, y a efectos del ejercicio de 2014, en cuanto a la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y amparándose en lo dispuesto en el artículo 1º de la mencionada Norma Foral acordó mantener el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto, siempre y cuando los bienes de uso residencial no sean residencia habitual del sujeto pasivo ni de terceros por alquiler o por cesión de uso.

Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat ohiko bizilekutzat joko da, biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona batek edo gehiagok okupatuta dagoela.

Un bien inmueble de utilización residencial se considerará vivienda habitual, siempre que conste en el padrón municipal que el bien inmueble está ocupado por una o más personas.

Hala ere, errekargua ez aplikatzeko ondorengo egoera onartu zen:

Aún y todo, se aprobó el siguiente supuesto de no aplicación del recargo:

*“Zahar etxeetan erroldatutako pertsonen etxebizitzak. Kasu hauetan, zahar etxcean erroldatu baino lehen zuten ohiko etxebizitzak bakarrik izango du salbuespena.”*

“*Las viviendas de personas empadronadas en residencias de ancianos. En estos asos, solamente será exenta la vivienda habitual que poseían antes de empadronarse en la residencia de ancianos.”*

Espedientean azaltzen den zergaduna zahar etxeean erroldatuta dago.

El contribuyente señalado en el expediente se encuentran empadronado en residencia de ancianos.

Beraz, Gobernu Batzar honek, aho

Por todo ello, la Junta de Gobierno, por

batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**E R A B A K I   D U**

**<u>LEHENA</u>**.- EZ aplikatzea aipatutako zergaren kuotaren %50eko errekargua **A.L.P.**ri, zeren 2015eko urtarrilaren 1ean nahiz eta 6049313 zenbaki finkoa duen etxebizitza inoren ohiko etxebizitza ez izan, errekargua ez aplikatzeko ondorengo egoeran dagoelako:

***"Zehar etxeetan erroldatutako pertsonen etxebizitzak. Kasu hauetan, zahar etxean erroldatu baino lehen zuten ohiko etxebizitzak bakarrik izango du salbuespena."***

**<u>BIGARRENA</u>.-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta interesatuari.

**A C U E R D A**

**<u>PRIMERO</u>**.- No aplicar a **A.L.P**., númeo fijo 6049313, el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto, ya que, a a pesar de que a 1 de enero de 2015 la vivienda no sea vivienda habitual, se encuentra en el siguiente supuesto de no aplicación del recargo:

***"Las viviendas de personas empadronadas en residencias de ancianos. En estos casos, solamente será exenta la vivienda habitual que poseían antes de empadronarse en la residencia de ancianos."***

**<u>SEGUNDO</u>**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y al interesado.

**8.- <u>Ibilgailuaren zergaren ordainketa zatikatzea.- Birjarpenezko errekurtsoa</u>.**

Bi mila hamabosteko maiatzaren 6an, **P.L.V**.ek Gobernu Batzarrak apirilaren 7an hartutako erabakiaren aurka birjarpenezko errekurtsoa aurkeztu du.

Bi mila eta hamabosteko apirilaren 14an, **P.L.V**.ek SS-9102-BJ ibilgailuaren zergaren ordainketa (146,60€) atzeratzea eskatu zuen. Gaur egun dirusarrerik ez dituela dio, eta lortzen dituenean, ordainduko duela dio.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, zorraren aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gutxieneko kopurua 150 euro direla dio. Kasu honetan, zorra ez da kopuru horretara iristen.

Ondorioz, Gobernu Batzarrak, 2015eko apirilaren 17an, **P.L.V**.ren izenean dagoen SS.9102-BJ ibilgailuaren zergaren ordainketa (146,60€) ez zatikatzea erabaki zuen.

Birjarpenezko errekurtsoan zera adierazten du: gaur egun dirusarrerik ez duela, et, hemendik gutxira, hiru hilabetera gutxi gora behera, ordaindu ahal izango duela.

Aurrekoa ikusita, eta Kontuhartzailetza departamentuan egin duen txostenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.- **P.L.V**.ek aurkeztutako birjarpenezko errekurtsoa onartzea eta, ondorioz, ibilgailuaren (SS-9102-BJ) zergaren ordainketa irailaren 1era atzeratzea.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetza departamentuari eta interesatuari.

**9.- Solicitud de HERROLDE, S.L., de corrección del encuadramiento de la tasa de residuos.**

El 12 de marzo de 2015, HERRODLE, S.L., ha solicitado la corrección del encuadramiento de la tasa de basuras de la tarifa 4 (supermercados) a la tarifa de domicilios.

HERRODLE, S.L., es propietaria de los locales ubicados en la calle Batxiler Zaldibia 3 y Rondilla 50 (supermercados Todo Todo). Al ejercer la actividad de “Supermercados”, se encuentra en la tarifa del grupo 4, es decir, el de los supermercados o similares.

HERRRODLE, S.L., remarca que todos los residuos de cart`´on, plástico y residuos orgánicos son retirados por sus camiones al almacén central, y de allí los recoge la empresa Saica Despanorsa para su reciclado, por lo que el Ayuntamiento no presta tal servicio de recogida. Aportan copia del contrato con la empresa Saica Despanorsa. Como consecuencia, al no hacerse uso del servicio de recogida municipal y disponer de un servicio de recogida propio, entienden que es más junto y equitativo la actividad dentro de la tarifa de domicilios.

Para resolver esta cuestión debemos partir de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, cuyo artículo 20.1 marca la definición de Tasa y las condiciones de exigibilidad de la misma, vinculada a la prestación de un servicio público, señalando a continuación un serie de supuestos susceptibles de sometimiento a Tasa, entre los que recoge, en el apartado 3.s) del citado artículo 20, el servicio de recogida de residuos sólidos. En cumplimiento de las prescripciones de dicha Norma Foral, se aprobó por el Ayuntamiento la correspondiente Ordenanza Reguladora de Tasas por prestación de Servicios Públicos y Realización de actividades, encuyo Anexo 2.1.6 se recoge la Tasa por servicio de basuras.

De dicha regulación se desprende que la exigibilidad de la Tasa que nos ocupa se vincula con la prestación misma del servicio, esto es, con la posibilidad de hacer uso del mismo, pero con total independencia del grado de uso del referido servicio que el sujeto pasivo de la tasa efectúe, de modo que la utilización concrea no resulta relevante para determinar su exacción. En este sentido, es doctrina reiterada del Tribunal Supremo, como puede verse en sentencias como la de 24 de febrero de 2004, que “en la Tasa de recogida de basuras o de eliminación de residuos sólidos, no es precisa la generación de aquéllas o de éstos por parte de los contribuyentes para que se genere la obligación de abonar la cuota tributaria de la misma, pues lo determinante de su hecho imponible es la posibilidad de hacer uso de tal servicio, con abstracción de que el interesado afectado no haya contribuído o no haya podido contribuir a la generacion de dichos residuos, basuras o desperdicios.”.

Se hace constar que Tolosaldea Mankomunitatea en su día realizó una visita para ofercerles la prestación del servicio pero ellos declinaron la oferta.

Por todo ello, de conformidad con el informe emitido por el departamento de Intervención y en base a lo dispuesto en la Ordenanza Fiscal de éste Ayuntamiento en el que se expresa que la tasa de basuras de los locales ubicados en Batxiler Zaldibia 3 y Rondilla 50 (supermercados Todo Todo) se encuentran dentro del grupo 4 (supermercados o similares), La Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**A C U E R D A**

**PRIMERO**.- Denegar la solicitud de corrección del encuadramiento de la tasa de basuras de la tarifa 4 (supermercados) a la tarifa de domicilios presentada por HERROLDE, S.L..

**SEGUNDO**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y a HERRODLE, S.L.,

**10.- M.P.E.U. Errota Berri baserria. Obra baimena eta EIOZen hobaria edo salbuespen eskaera.**

Bi mila hamalauko abuztuan 29an, 2014/1190 zbk.dun Alktete Dekreture bidez, Errotaberri baserriko teilatua erritzeko baiena emanzitzaion **M.P.E.U.**ri, baimenarekin batera, ondorengo tributuak ordaindu zituen.

* Obra baimenaren tasa: 675,65 euro
* EIOZ: 742,82 euro.

Bi mila hamabosteko apirilaren 17an, Aldabako Errota Berri baserria ondare edo patrimonio historikoa bezala kontsideratta dagoela esaten du eta, ondorioz, lehen ordaindutako tasa eta zergaren kopurua itzultzea eskatzen du.

Ordenantza Fiskaletako 2.1.2 eranskinak, Obra baimenei buruzkoak, ez du aurreikusten inongo salbuespenik kasu hauetarako.

EIOZ-ri dagokionez, Foru Arauak, 5.1 artikuluan, zera dio>: "... udalerriek honako hobariak arautu **ahal izango dituzte** beren ordenantza fiskaletan zerga kuotaren gainean: a) 100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interesa berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sutatzeko baliagarriak gertatzeagatik.".

Tolosako Ordenantza Fiskalek, ordea, ez dute hobaririk aurreikusten obrak interes berezikoak edo udal onurakoak diren kasuentzako. Hau da, hobari hau ez da aplikagarria.

Aipatutakoa kontuan izanik, eta Kontuhartzailetza departamentuak egin duen txostenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**<u>LEHENA</u>**.- Ez ematea **M.P. E.U**.ri obraren baimenaren tasa eta EIOZ-en salbuespena, lehen aipatutako arrazoiengatik.

**<u>BIGARRENA</u>**.- Erabaki honen berri emtea Kontuhartzailetza departamentuari eta interesatuari.

**11.- <u>Bide publikoaren okupazioa eta zaborraren erreziboen ordainketa zatikatzea:C.B.A.ren eskaera.</u>**

Bi mila hamabosteko apirilaren 22an, **C.B.A**.k bide publikoaren okupazioa eta zaborraren ordainketa 3 epeetan zatikatzea eskatu du. Kopurua: 6.349,21 euro da.

Tolosako OrdenantzaOrokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudetzeko etabiltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 6.000 eta 12.000 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea urte 1 del dio eta banku bermea aurkeztu behar dela.

9. artikuluko 5. atalak dio: ***"Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du."***

Bi mila eta hamarreko ekainaren 10ean, Udal Bilkurak artikulu berri bat onartu zuen. Honen arabera, edozein izaeretako zerga zorren ordainketa zatikatu edo geroratzeko, kopurua 100.000 baino gehiago ez denean eta ordaintzeko epea gehienez 5 urte denean, bermea ez aurkeztea erabaki daiteke.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik eta Kontuhartzailetza departamentuak egin duen txostenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**<u>LEHENA</u>**.- **C.B.A**.ren bide okupazioaren eta zaborraren zatikatzea 3 epeetan.

**<u>BIGARRENA</u>**.- Zatikatze honen ondorioz (espedientean azaltzen dira epeak eta kopuruak), berandutze interesak kobratzea, banku bermea aurkeztu gabe.

**<u>HIRUGARRENA</u>**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetza departamentuari eta interesatuari.

**12.- <u>Isunen erreziboen ordainketak zatikatzea: L.P.G.ren eskaera.</u>**

Bi mil eta hamabosteko martxoren 17an, **L.P.G**.k isunen erreziboen ordainketa 6 hilabetetan zatikatzea eskatu du.Guztira zor duena: 233,93 €.

Tolosako Ordenanza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerk kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 150 eta 400 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea skatzeko gehienezko epea 3 hilabeteko dela dio.

9. artikuluko 5. atalak dio: "*Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du.*"

Aipatutako kontuan izanik, eta Kontuhartzailetza departamentuak egindako proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez et alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I  D U**

**<u>LEHENA</u>**.- **L.P.G**.ren erreziboen ordainketa 6 hilabetetan ez zatikatzea.

**<u>BIGARRENA</u>**.- 3 hilabetetako zatikapena onartzea. Honen ondorioz (espedientean azaltzen dira epeak eta kopuruak), berandutze interesak kobrtuko dira, banku bermea aurkeztu gabe.

**<u>HIRUGARRENA</u>**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetza departamentuari eta interesatuari.

**13.-<u>Kotxearen zergak eta isunen erreziboen ordainketa zatikatzea: D.M.A.ren eskaera</u>.**

Bi mila hamabosteko martxoaren 25ean, **D.M.A**.k kotxearen zergak eta isunen erreziboen ordainketa 24 hilabetetan ordaintzea eskatu du. Pertsona honek A.E.V. eta X.G.U.nen izenean dauden zorrak ere ordaintzeko eskaera egin du. **D.M.A**.k 5.616,12€ zor ditu, A.E.V.ek 1.061,93€ eta Xabier Goenaga Urdangarinek 509,93€. Guztira 7.187,93€.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, Zergak ta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko et biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 6.000 eta 12.000 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea urte 1 dela dio.

9. artikuluko 5. atalak dio: "***Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du.***"

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I  D U**

**<u>LEHENA</u>**.- Ez onartzea **D.M.D**.ren kotxearen zergak eta isunen erreziboen ordainketa 24 hilabetetan zatikatzea.

**BIGARRENA**.- 12 hilabeteko zatikapena onartzea. Honen ondorioz (espedientean azaltzen dira epeak eta kopuruak) berandutze interesak kobratuko dira bermea aurkeztu gabe.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetza departamentuari eta interesatuari.

**14.- Tailer kulturalen erreziboen ordainketa zatikatzea:C.G.M.R.en eskaera.**

Bi mila hamabosteko apirilaren 21ean, **C.G.M.R.**ek taller kulturlen erreziboen ordainketa 6 hilabetetan ordaintzea eskatu du. Guztira zor duena 353,09 euro dira.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordanantzak, bere 2. eranskinak, 150 eta 400 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea 3 hilabetekoa dela dio.

9. artikuluko 5. atalak dio: "***Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du."***

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik eta Kontuhartzailetza departamenduak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.- Ez onartzea **C.G.M.R**.ek taller kulturalen erreziboen ordainketa 6 hilabetetan zatikatzea.

**BIGARRENA**.- 3 hilabeteko zatikapena onartzea. Honen ondorioz (espedientean azaltzen dira epeak eta kopuruak), berandutze interesak kobratuko dira banku bermea aurkeztu gabe.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetza departamentuari eta interesatuari.

**15.- Isunen erreziboen ordainketak zatikatzea: L.V.S.en eskaera.**

Bi mila hamabosteko martxoaren 13an, **L.V.S**.ek isunen erreziboen ordainketa 5 hilabetetan ordaintzea eskatu zuen. Guztira zor duena 49,93 euro dira.

Tolosako Ordenanza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren betelako sarrerak kudetzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, zorraren aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gutxieneko kopurua 150€ direla dio. Kasu honetan, zorra ez da kopurua honetara iristen.

9. artikuluko 5. atalak dio: ***"Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrrean dagoen berandutze interesa sortuiko du."***

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.- Ez zatikatzea **L.V.S**.en izenean dagoen 49,93 euroko isuna.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetza departamentuari eta interesatuari.

**16.- Isunen erreziboen ordainketak zatikatzea: M.H.T.ren eskaera.**

Bi mila eta hamabosteko apirilaren 13an, **M.H.T**.k isunen erreziboen ordainketa 3 hilabetetan ordaintzea eskatu du. Guztira zor duena 573,93 euro dira.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren betelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 400 eta 6.000 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea urte 1 dela dio.

9. artikuluko 5. atalak dio: ***"Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du."***

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.- Onartzea 3 hilabetetan isunen erreziboen ordainketa zatikatzea **M.H.T.**ri.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetza departamentuari eta interesatuari.

**17- 11/2015 zenbakia duen faktura- zerrenda.**

Kontuhartzailetzak **11/2015** faktura zerrenda aurkeztu du; **148.615,62** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA.- 11/2015** faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailetzari.

**Gai zerrendatik aparte eta daukaten premia kontuan izanik, ondoren aipatzen diren gaiak tratatzen dira:**

**Ondasun Higiezinen gaineko zerga. Errekargua.Alokairua.-**

Uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak aldaketa batzuk sartu zituen tokiko zerga-ordainketan eta 2012ko uztailaren 10eko 131zk.ko GAOn argitaratu zen.

La Norma Foral 4/2012, de 4 de julio, que introdujo varias modificaciones en el pago de impuestos locales fue publicada en el BOP nº 131, de 10 de julio de 2012.

Udalbatzak, 2014ko azaroaren 7an egindako osoko bilkuran, eta 2015ko ekitaldirako ondorioetarako, Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren Ordenantza Fiskalari dagokionez, eta goian aipatutako Foru Arauko 1. artikuluan xedatutakoan babestuta, %50eko errekargua mantentzea erabaki zuen aipatutako Zergaren kuota likidoaren gainean, baldin eta bizitoki erabilerarako ondasunak subjektu pasiboaren edo errentagatik edo erabilera-lagapenagatik hirugarrenen ohiko bizitoki ez badira.

La Corporación Municipal, en sesión realizada el 7 de noviembre de 2014, y a efectos del ejercicio de 2015, en cuanto a la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y amparándose en lo dispuesto en el artículo 1º de la mencionada Norma Foral acordó mantener el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto, siempre y cuando los bienes de uso residencial no sean residencia habitual del sujeto pasivo ni de terceros por alquiler o por cesiòn de uso.

Bizileku erabilera ondasun higiezin bat ohiko bizilekutzat joko da, biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona batek edo gehiagok okupatuta dagoela.

Un bien inmueble de utilización residencial se considerará vivienda habitual, siempre que conste en el padrón municipal que el bien inmueble está ocupado por una o más personas.

Hala ere, errekargua ez aplikatzeko ondorengo egoera onartu zen:

Aún y todo, se aprobó el siguiente supuesto de no aplicación del recargo:

***"Errentan emandakoak. Hori ziurtatzeko, alokairu kontratua aurkeztu beharko dute. Kontratu honen berri emango zaio Ogasunari. Alokairua urteko martxoaren 31 baino lehen edo aurreko urteko 2. seihilabetean egon beharko du indarrean."***

***"Las dadas en alquiler. Se exigirá el contrato de alquiler. Se dará cuenta de ello a la Hacienda Foral. El alquiler tendría que estar en vigor antes del 31 de marzo del mismo año o en el segundo semetre del año pasado."***

Espedientean azaltzen den zergadunak alokairu kontratua ekarri du etxebizitza hori errentan dagoela ziurtatzeko.

El contribuyente señalado en el anexo ha presentado el contrato de alquiler para certificar que dicha vivienda está dada en alquiler.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Por todo ello, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

**LEHENA**.- Errekargua EZ aplikatzea **V.S.R.**ri Idazkariak diligentziatutako zerrendan agertzen dena.

**PRIMERO.-** No aplicar el recargo al contribuyente **V.S.R.** que figura en la relación que, diligenciada por el Secretario, figura en el expediente

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari.

**SEGUNDO**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y al interesado.

.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.--.-

**Ondasun Higiezinen gaineko zerga. Errekargua. Herentzia**.-

Uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak aldaketa batzuk sartu zituen tokiko zerga-ordainketan eta 2012ko uztailaren 10eko 131 zk.ko GAOn argitaratu zen.

La Norma Foral 4/2012, de 4 de julio, que introdujo varias modificaciones en el pago de impuestos locales, fue publicada en el BOG nº 131, de 10 de julio de 2012.

Udalbatzak, 2014ko azaroaren 7an egindako osoko bilkuran, ta 2015eko ekitaldirako ondorioetarako, Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren Ordenantza Fiskalari dagokionez, eta goian aipatutako Foru Arauko 1. artikuluan xedatutakoan babestuta, %50eko errekargua mantentzea erabaki zuen aipatutako Zergaren kuota likidoaren gainean, baldin eta bizitoki erabilerarako ondasunak subjektu pasiboaren edo errentagatik edo erabilera-lagapenagatik hirugarren ohizko bizitoki ez badira.

La Corporación Municipal, en sesión realizada el 7 de noviembre de 2014, y a efectos del ejercicio de 2015, en cuanto a la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y amparándose en lo dispuesto en el artículo 1º de la mencionada Norma Foral, acordó mantener el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto, siempre y cuando los bienes de uso residencial no sean residencia habitual del sujeto pasivo ni de terceros por alquiler o por cesión de uso.

Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat ohiko bizilekutzat joko da, biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona batek edo gehiagok okupatuta dagoela.

Un bien inmueble de utilización residencial se considerará vivienda habitual, siempre que conste en el padrón municipal que el bien inmueble está ocupado por una o más personas.

Hala ere, errekargua ez aplikatzeko ondorengo egoera onartu zen (15. artikuluko e) atala)

Aún y todo, se aprobó el siguiente supuesto de no aplicación del recargo (art. 15.e):

*“Herentziaz jasotzen diren etxebizitzak bi urtez egongo dira salbuetsita errekargu honetaz.”*

*“Las viviendas recibidas en herencia estarán exentas de este recargo por dos años (contando a partir del día del fallecimiento)”.*

Espedientean azaltzen den

El contribuyente señalado en el

zergadunak azken bi urteetan jaso du etxebizitza herentzia bidez.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.- Errekargua EZ aplikatzea **Z.M.J.M**.ri.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari.

espediente ha recibido la vivienda en los dos últimos años mediante herencia.

Por lo tanto, y a la vista de cuanto antecede, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**A C U E R D A**

**PRIMERO.-** NO aplicar el recargo del 50% sobre la cuota líquida a **Z.M.J.M**.

**SEGUNDO**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y al interesado.

.-.-.-.-.---.--.-.-.-.-.-.--.--.-.-.--

**Ana Yurd elkartearen eskaera**.-

Ikusirik Udal Elkarteen Erregistroan inskribatzeko Ana Yurd elkarteak egin duen eskaera, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.- An Yurd elkartea Udal Elkarteeen Erregistroan sartzea, horrela proposatu duelako Berdintasun batzordeak.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Ana Yurd elkarteari, Udal Erregistroko ardurdunari eta Berdintasun sailari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:30etan.**

**ALKATEA** **IDAZKARIA**